




# ESPERI ENTZIAK



Setem



# Ulloako Jaialdi Agrocuirra (Lugo)





Badira lau urte Ulloako Jaialdi Agrocuirra (Lugo) antolatzen dela, eta haren helburu nagusia da ikusgai jartzea afektuaren eta sexuaren aldetik askotarikoa den landa-mundu bat, non pertsona bakoitzak bere sexualitatea era naturalizatu batean adieraz dezakeen. Bizitzen ari garen atzerakada demokratiko itzeleko egoera honetan, interseksionaltasuna funtsezkoa da harremanak izateko eta bizitzeko era berriak eraikitzerakoan; hartara, ekofeminismoak, ekologismoak (baso autoktonoaren defentsa) eta, oro har, sare-lanak ere definitzen dute esperientzia hau, eskualdeko beste ekimen agroekologiko, sozial eta kultural batzuekin batera.



## **Ekimena bultzatzen duten pertsonak eta erakundeak**

Colectivo Agrocuir da Ulloa deritzon kolektiboak kide hauek ditu: Braulio Vilariño nekazari, tabernari eta aktibista soziokulturala; Laura Halçague muiñeira, yerba mate-r eta landa-tangoko ikaslea; Adrián Gallero Moreiras kooperatiba-proiektuen gauzatzailea; A Ulloa eskualdean hartutako Gina Gisbert aktibista mediterranea; Marta Álvarez, María Álvarez eta Helena Pérez bestelako etxaldetarrak; eta Luisa Couto askatasunaren eta aniztasun sozialaren abokatu defentsaria.



## **Esperientziaren deskribapen osoa**

Ulloako Jaialdi Agrocuirrak –eta, hortaz, Ulloako Kolektibo Agrocuirrak– Ulloa eskualdean eramaten du aurrera bere jarduera; eskualdea Galiziaren erdigune geografikoan dago, eta Monterroso, Palas de Rei eta Antas de Ulla udalerrak barne hartzen ditu, Lugoko probintziakoak guztiak. Donejakue bide frantsesak zeharkatzen du eskualdea, eta erreferente gastronomiko bat da. Halaber, ugariak dira espazio natural ederrak, eta ekimen agroekologiko berritzaileak; hori dela eta, leku magikoa da.

Oraingo testuinguruan landa-eremuak etorkizunik ez duela esaten zaigu, eta egunez egun desegituratze, etnozidio eta biozidioko operazio bat eratzten ari da; hartara, inoiz baino beharrezkoagoa da printzipio eta balio berri batzuk aldarrikatzea, lurrari eta gure arteko harremanei loturik.

Ilido horretan, jaialdi hau egiteko motibazioak askotarikoak dira: guk geuk esperimenterikoko bizipenak eta geure errealitateak adierazi, ikusgai jarri eta partekatze beharra; lurrarenganako esker ona, hainbeste eskaintzen digu eta; eskualdea



kulturalki asaldatzeko eta dinamitzeko nahia; antolatzeke premia, tradizioekiko eta sexu-aniztasunarekiko errespetuaren bidez, herrixketako bizitza duintzeko eta berreskuratzeko helburuz; eraldaketa soziala sustatzeko lankidetzako eta kooperatibako loturen bultzada; eta abar.

Gure iritziz, horrelako ekimenek lagundu egiten dute inguruko pertsonak zein taldeak aktibatzen eta iratzartzen, eta “gurpil onuragarriak” sortzen, hegemoniaren aurkako eredu ekonomiko, sozial eta politikoak planteatuz doazenak. Agrocuir terminoak sexu-aniztasuneko bestelako eredu bat proposatzen du, nagusi den gay ereduaren aurrean: gizona, urbanita, goi-erdiko klasekoa, zuria, askotan fribolitatearekin eta kontsumismoarekin lotutakoa, eta beste batzuetan, ghettoetako bizitzarekin. Guretzat garrantzia duena, benetako askatasuna, norbera den bezalako izatea da, norberaren ingurunearekin konprometiturik egotea, eta onartua izatea. Horixe planteatzen du agrocuir kontzeptuak. Guk uste dugu eta aldarrikatzen dugu hemen, landa-eremuan, zailtasun asko badaude ere, errazagoa dela libre izatea eta bakoitzak nahi duen moduan bizitzea.



## **Ikaskuntzak**

- › Ekimen hau antolatzeak berak lagundu digu geure adierazpen-, autoafirmazio- eta, azken batean, ahalduntze-prozesuetan, maila askotan: antolakuntzaren, komunikazio publikoaren, sentimendu-adierazpenaren, geure sexualitatearen, eta abarren mailan.
- › Geure burua teoria-mailan hezi dugu LGTBQIA+ mugimenduaren, ekologismoaren, feminismoaren, eta abarren inguruan. Horren erakusgarri argia da agrogaytik agrocuirrerantz egin dugun trantsizioa.
- › Gure ideiak hainbat modutan eta hainbat mailatara eta testuinguru soziokulturaletara egokituz azaltzen, adierazten eta transmititzen ikasi dugu.



## **Aplikaziorako hurrengo pausoak eta/edo gomendioak**

- › Harreman, lankidetzeta eta lan bateraturako sareak zabaltzea, beste antolakunde, ekimen eta pertsona batzuekin, hurbileko inguruneekin zein beste lurralde batzuetakoekin.
- › Jarduera bat aurrera eramatea urte guztian zehar: sentsibilizazioa eskoletan, lantegiak eta jarduerak antolatzea eskualdean, etab. (lana eta bizitza bateragarri egiteko arazoak).
- › Jaialdiaren hazkunde progresiboa beraren jasagarritasunarekin bateragarri egiteko gai izatea (antolakunde amateurra den aldetik nahiz ekologia-ren aldetik eta proposatzen ditugun balio eta printzipioekiko koherentzia-ren aldetik).



## **Gako-hitzak**

- › Jaialdia, landa, queer.

**Burujabetza eraikiz geure askatasuna eta autonomia indibidual eta kolektiboa konkistatzen ditugu**  
(Penca de Sábila erakunde ekologista eta kulturala)





### **Mundua berdez eta lilaz amestea**

1988. urtetik, gure ekintzaren xedea da gizarte jasangarri eta burujabe bat lortzen laguntzea, kultura anbientalista eta feminista bat sustatuz. Diziplinarteko kolektibo bat gara, eta gure lana, lehentasunez, hauekin egiten dugu: emakumeen antolakundeekin, gazte-sareekin; uraren kudeaketa komunitarioaren inguruan antolaturiko elkarteekin; nekazari-komunitateekin; herritarren antolaketarako plataformekin; eta eskubide kolektiboen eta ingurumen-eskubideen alde mobilizatutako antolakunde eta pertsonekin.



## **Ekimena bultzatzen duten pertsonak eta erakundeak**

Esperientzian parte hartzen dugunok: Penca de Sábila erakundea (Corporación Penca de Sábila), Boqueróngo Elkarre Agrokologikoa (Asociación Agroecológica de Boquerón, ACAB), Campo Vivo elkarre (Asociación Campo Vivo), San Antonioko Nekazari Erakundea (Corporación Campesina de San Antonio, CORCÁN), Korrejimendu arteko Emakumeen Sarea (Red Intercorregimental de Mujeres), Korrejimendu arteko Gazteen Ingurumen eta Kultura Sarea (Red Ambiental y Cultural Juvenil Intercorregimental, REDAJIC), Antioquiako Departamenduko Akueduktu Komunitarioen Elkarre (Asociación Departamental de Acueductos Comunitarios de Antioquia, ADACA).



## **Deskribapena**

Gure ikuspegi etiko eta politikotik, burujabetza autonomia pertsonal eta kolektibotzat jotzen dugu: Lurralde-burujabetza, elikadura-burujabetza, herri-burujabetza posible dira, baldin eta autodeterminatzen diren izaki libre batzuegan oinarritzen badira, beren identitateak eratzeko, munduan duten egoera ulertzea euskarritzat erabiltzen duten izaki libre batzuegan, jakitun naturaren arduradun eta partaide direla, eta eskubideak eta betebeharrak dituzten subjektuak, tartean daudelarik gure gorputza, geure bizitzak zuzentzeko ahalmena, izateko eta erotismo eta maitasunezko harremanak eta aukeraturiko sexualitatea osotasunez eta plazerez bizitzeko askatasuna, bai aniztasuna bai desberdintasuna errespetatuz, haiek demokrazian izateko eta egiteko ezinbestekotzat hartuta, bai eta gure familia-, auzo-, gizarte- eta talde-sareetan geure burua pertsona autonomo gisa ezagutzeko ere.



Gure iritziz, gizarte burujabe bat askatasunean, demokrazian, justizia sozialean eta ingurumen-justizian oinarritzen da, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna eta ondasun material zein sinbolikoen eskuragarritasun ekitatiboa bermatzen ditu, emakumeen aurka erabilitako indarkeria-era guztiak ezabatzen ditu, eta sexu- eta genero-aniztasunak errespetatzen ditu. Burujabetza eta autonomia autogestio komunitarioaren adierazpena eta baldintza dira.

Borrokatzen gara lurraldearen gizarte- eta ingurumen-kudeaketa elikadura-burujabetzan, agroekologian, kontsumo arduratsuan eta bidezko merkataritzan oinarritzeko, jasangarritasunezko bizitzarako alternatiba gisa; defendatzen ditugu ura, bertako haziak, lurra, eta antzinako jakintzak, bizitza merkantilizatzen duten multinazional horiek ondasun komun eta publikoak monopolizatzearen eta harrapatzearen aurka erresistentzia eginez. Eta borroka horretan badute tokia eraldaketak egiteko beharraz sinetsirik dauden pertsona guztiek, bizitza duin eta burujabe bat lortuko bada, haien generoa, adina, sexu-orientazioa, genero-identitatea eta kultura edozein izanik ere.



## Ikaskuntzak

### **Bizitze ona genero-justizian eta aniztasunean ikasten**

Gure lan instituzional guztian ikuspegi feminista gehitzen dugu, gure ustez gizarte jasangarri, demokratiko, justu, barne-hartzaile eta baketsu bat erakitzea generoko berdintasun, ekitate eta justiziaren bidez baino ez delako posible. Hori dela eta, barne hartzea, herritartasuna osoki erabiltzea, baliabide, ondasun eta aukerak eskuragarri izatea, erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzea, eta eskubide guztiak errespetatzea sustatzen dugu.

Etengabeko prestakuntza prozesuak eramaten ditugu aurrera, feminismoa antolakunde komunitario eta sozialekin egiten dugu lanaren erreferente etiko eta politikotzat edukitzeko. Horri esker, zalantzan jarri ahal izan dira botere-harreman zapaltzaileak, rol eta estereotipo tradizionalen erreprodukzioa arlo publiko eta pribatuan, eta aurrera egin ahal izan da, halaber, bestetasunaren zein sexu-aniztasun eta genero-identitateen aitormen eta errespeturako ahalmenean.

Esperientzien sistematizazioa, ikerketa, jakintza arteko elkarrizketa, debatea eta trukea baliatuz, gure praktikaz gogoeta egitea lortu dugu, eta gure ekintza politikoa hobeki proiektatzea. Pertsona, antolakunde eta komunitateekin





baterako sorkuntza eginez, honako hauek oinarritzat hartzen dituzten hainbat jarduera-ildo eratu ahal izan dira: zainketaren etika; parte-hartze pertsonal eta kolektiboa; prestakuntza politikoa; genero-ekitatearen eta genero- eta sexu-aniztasunen arloko prestakuntza; ingurumen-hezkuntza; eta ezagutzen sorkuntza. Hori guztia etengabeko ekintza-ikerketako prozesu batean egiten da, autogestioa eta izakia bere diferentzian eta dibertsitatean subjektu gisa errespetatzea gakoak direla.



## **Aplikaziorako hurrengo pausoak eta/edo gomendioak**

### **Bidea eginez ibiltzea**

Etengabeko gogoeta, heterosexualaz bestelako sexu-orientazio eta genero-identitateak dituzten pertsonen aldera dauden aurreiritzi eta estereotipo pertsonal eta kolektiboen inguruan, hainbat prozesua baliatuz –prestakuntzako, interakzioko, eta irekierako prozesuak, pertsona horien ahalduntzea ekintza- eta erabakitze-espazio guztietan bideratzekoak– eta komunitatearen prozesu guztietan gaia sartuz, bazterkeria saihesteko eta errespetua eta inklusioa bultzatzeko.



## **Gako-hitzak**

› Burujabetza, askatasuna, autonomia, errespetua, eskubideak.

# Komunitate indigenetan heteronormatibotasuna pixkanaka hausten (Chiapas. Mexiko)

...DS Y/O RECOMENDACIONES PARA SU

...IONES SEXUALES Y DE GÉNERO





K'inal Antsetik Emakume Indigenentzako Prestakuntza eta Gaiakuntza Zentroak (CEFOCAM-K'inal Antsetik) emakume indigenen antolaketa-prozesuak bultzatu eta sendotzeko planteamenduaren arabera garatzen du bere lan-estrategia. Lan-ildoak hauek dira: merkaturatzea, komunikazioa, agroekologia, emakumeen eskubideak, osasuna eta eskubide lesbikoak Chiapas eskualdean, Mexikon.

Eskubide lesbikoak lantzearen helburua da sexu-aniztasunaren errespetua eta sexu-aukera askearen eskubidea sustatzea, hala zentroko bertako emakume indigena eta nekazarien artean nola, Chiapas estatuaren barruan, lan egiten den eskualdeetan, bai eta Mexikon ere, oro har.



## **Ekimena bultzatzen duten pertsonak eta erakundeak**

CEFOCAM (K'inal Antsetik Emakume Indigenentzako Prestakuntza eta Gaiakuntza Zentroa), K'INAL ANTSETIK elkarteak, Jolom Mayaetik-eko («Ehule Maiak») Zuzendaritza Mahaia, eta Chamanas kolektibo lesbikoa (Colectiva Lésbica Chamanas).



## **Deskribapena**

Lesbianekin egun egiten den lana prozesu luze baten emaitza da, eta haren aurkariak datoz K'inal Antsetik-eko koordinatzaileak eta lantaldeko beste kide batzuek Chiapaseko mugimendu lesbofeminista era aktiboan parte hartu zuten garaitik. Gero, K'inal Antsetik-eko Emakumeen Eskubideen Arloak Eskubide Lesbikoen Ildoa ireki zuen 2011. urtean.

Begirale Sarea, K'inal-eko lan-komunitateetako hainbat emakume indigenek osatua, emakume indigenen eskubideak beraien eskualdeetan bertan sustatzeko eratu zen. Haietako batzuek sexu-orientazioz lesbianak zirela adierazi zuten, eta nahi zutela elkarteak haien eskubideen arloko lanean sakontzea, prozesu horretan parte hartzeko konpromiso aktiboa agerturik.

Emakume horiekin nahiz –beste eskualde batzuetan haiekin era informalean harremanetan jarri eta gero– K'inal-era gerturatu ziren beste batzuekin egindako zenbait bilera abiapuntu, eskubide lesbikoen inguruko lan-ildo bati hasiera eman zitzaion, eta K'inal Antsetik-en eskema organikoan sartu zen.



2012az geroztik, K'inal Antsetik-ek jarduera batzuk eraman zituen aurrera, batetik, lan-ildo horretan jardungo zuen lantaldea bera sendotzeko eta, bestetik, populazio subjektuarekin lotura sendotzeko.

Lantaldeak hainbat topaketa lesbofeministatan parte hartu izan du: Latinoamerika eta Karibeko Topaketa Lesbofeminista (Bolivia, 2012; eta Kolonbia, 2014); "Feminismo eta Lesbofeminismo deskolonialak, antirrazistak eta emakumeen aldetiko erresistentzia-praktikak lurraldeetan" jardunaldiak (Guatemala Hiria, Guatemala, 2014); Latinoamerika eta Karibeko LGTBI Lidergo Politikoen I. Topaketa.

Era berean, parte hartu du, Les Brujas kolektibo lesbiko feminista autonomoarekin batera, "Mugetan Zeharko Errebeldiak Ehunduz" I. Jardunaldi Lesbofeminista Antirrazistak topaketa antolatzen. K'inal Antsetik-en zentroan bertan egin zen (CEFOCAM – K'inal Antsetik), San Cristóbal de las Casasen (Chiapas), 2014ko apirilaren 1etik 5era. Hain zuzen ere, ekitaldi hori izan zen (bukaerako aldarrikapen-martxa barne) San Cristóbal de las Casas hirian, Chiapasen, egin zen izaera publikoko lehen topaketa lesbikoa.

Aurreko guztiaren ondorioz, kolektibo lesbofeminista bat sortu zen ("Chamanas" direlakoak, K'inal-ek elkarrekin harremanetan jarri zituen lesbianek eratua) eta Chiapaseko mugimendu lesbikoaren oroimen historikoaren zati bat berreskuratu zen.

### **Kolektibo gisa, honako ekitaldi hauek antolatu ditugu, besteak beste:**

- › Jardunaldi Lesbofeminista, Antirrazista eta Antikapitalistak, 2014an.
- › Chiapaseko Lehen Kongresu Feminista, 2016an, feminismo lesbikoen eta transfeminismoen mahaia.
- › Poesia lesbikoko lantegia, 2017an.
- › Jardunaldi Lesbo Trans Feministak, 2017an.
- › Chiapaseko eta, nagusiki, San Cristóbal de Las Casas hiriko mugimendu lesbikoaren historiari buruzko dokumental bat egitea. Gaur egun, bigarren atal bat egiten ari da, altxamendu zapatistaren urteei buruzkoa.



## Ikaskuntzak

Oraingoz, hainbat emakume lesbiana indigenaren eta afroren zein hainbat trans pertsonaren esperientziak geureganatzen ari gara. Halaber, zentroko emakumeen artean gai hauei buruz askatasun nahiz sentsibilitate handiagoz hitz egiten ikasi dugu, askoz sentsibilizatuago gaudela. Beste lesbiana-talde batzuk ezagutu ditugu, Chiapas estatukoak zein kanpokoak, eta haietako askorentzat erreferente ere bilakatu gara. Ekimen hau oso garrantzitsua izan da bai zentroan bai gure baitan.



## Aplikaziorako hurrengo pausoak eta/edo gomendioak

Hurrengo pausoa da lesbianentzako Arreta, Dokumentazio, Gaikuntza eta Ikerkuntzako Zentroa formalizatzea.

Epe laburrean, Chiapaseko lesbianen eskubideen urraketa nagusiei buruzko diagnostiko bat egingo da.

Era berean, Chiapasen lesbianek pairatzen dituzten baldintzak eta egoera direla eta, bazterkeria eta lan-indarkeria nagusi direla, aztertzen ari gara oso garrantzitsua dela zentroaren barruan prestakuntza eman ahal izatea, lanbide ez-tradizionalen zenbait arlotan, haietan teoria praktikarekin konbinatu ahal izateko: elektrizitateko, errementaritzako, zenbait lanbidetako lantegiekin, kideek bizi diren tokietan beren kolektiboak eratu ahal izateko, beren autonomia eraikiz joateko.

Epe luzerako erronka da sexu-aniztasuneko lanaren zeharkakotasuna ezartzea CEFOCAMeko arlo guztietan. Garrantzi handikoa iruditzen zaigu arlo bakoitzean sexu-aniztasunaren ikuspegitik lan egin dadin.



## Gako-hitzak

› Errespetua, isiltasuna hautsi, generoa, aitormena, eta heteronormatibotasunari ez.

# **BIZIGARRI: genero-ekitatearen aldeko antolakunde-aldaketarako prozesua** (REAS Euskadi)





“Bizigarri” antolakunde-aldaketarako prozesu bat da, eta helburutzat du REAS Euskadik antolakunde gisa dituen funtzionamendu-maila guztietan (estrategiak, egiturak, lan-sistemak, politikak, erakunde-kultura, etab.) gertatzen diren genero-desparekotasunak desagerrazteko sustatzea: Horretarako, sarearen barneko genero-desparekotasunei buruzko diagnostiko bat egin zen, eta 2017ko urrian plangintza-prozesuari ekin diogu, atzemandako desparekotasunei aurre egiteko neurriak diseinatzeko.



## **Ekimena bultzatzen duten pertsonak eta erakundeak**

REAS Euskadi, Equipare, INCYDE eta Silvia Piris kontsultorea.



## **Deskribapena**

Bizigarri genero-ekitatearen aldeko antolakunde-aldaketarako prozesuen esparruan kokatzen da: antolakundearen barneko gogoeta jarduerak, dauden egiteko eta pentsatzeko moduak eraldatzeko, antolakundearen funtzionamendu-esparruetako edozeinetan (estrategiak, egiturak, lan-sistemak, politikak, antolakunde-kultura, etab.) gertatzen diren genero-desparekotasunak desagerrazteko helburuz.

Antolakundea era integral eta zabal batean aztertzeke proposamen bat da, emakumeek eta gizonek antolakundeetan dituzten egoera eta maila aztertze hutsa gainditzeko xedea duena. Antolakunde barneko begirada horren oinarria hau da, Natalia Navaroren arabera: “generoa ez da nolakotasun gisa interpretatzen, prozesu generizatzaile batzuen eran baizik; horrek, antolakundearen eremuan, ekarriko luke lan-modu, praktika jakin batzuk eta balio jakin batzuk nola pribilegiatzen eta legitimatzen diren aztertzea, eta nola beste batzuk alde batera uzten diren. Hartara, egoera jakin batean, egunez egun genero-erregimen nagusia eraikitzean datza; eraikuntza hori koherentea da eta esparru material, normatibo eta ideologiko batzuetan oinarritzen da, esparru horiek aukeran dauden jarduera-alternatibak modu erreal eta eraginkor batean mugatzen dutelarik.”

Prozesu horiek, horrenbestez, azterketaren eta gogoetaren erdigunean antolakunde-kultura jartzen dute, alegia: “sinesmen-multzoko partekatu bat, antolakundearen funtzionamenduan zer onartzen den eta zer balioesten den mugatzen duten espektatiba batzuk sortzen dituen eta, besteak beste, antolakunde horren barnean zer



jotzen den femeninotzat eta zer maskulinotzat definitzen duena". Hain zuzen ere, idatzirik egon gabe batzuetan, erabakiak hartzeko, antolatzeko, komunikatzeko... antolakundeek baliatzen dituzten prozesu askoren atzean dagoen hori da; hori dela eta, aldaketekiko erresistentzia agertzen duen esparru bat da, baina aukera handiak eskaintzen ditu, erakundeak ekitate eta justiziazko –zentzu zabal batean– ikuspegi batetik eraldatu nahi izanez gero.

Prozesua bi une nagusitan antolaturik dago: lehena diagnostikoa da, eta bestea plangintzari ekitekoa da. Plangintza horretan jarduerak zehazten dira, gure antolakundeetan, emakumeen eta gizonen artean atzemandako desparekotasunak desagerrarazteko, emakumeen ahalduntzea sustatzeko, eta genero-ikuspegiaren zeharkakotasuna ezartzeko.

Prozesuaren beste bereizgarri bat izan da lagun-egite kolektiboko eredu bat esperimentatzea. Lagun-egite Metodologikoko Taldea izendaturiko espazio bat izan da, non elkartu garen, prozesuan emandako pausoak pentsatu, prestatu, kontrastatu eta balioztatu ahal izateko, hura dinamizatu dugun pertsona eta erakunde guztiak: INCYDE, Equipare, Silvia Piris eta Zalóa Pérez (REAS Euskadiko genero-arloko erreferentziazko pertsona). Espazio hori funtsezkoa da Bizigarri ulertzeko; izan ere, bide eman badigu mahai gainean gaiari buruzko askotariko begiradak eta ezagutzak jartzeko, eta talde dinamizatzailearentzako ikasteko eta autozaintzeko espazio bat sortzeko.

Autodiagnostiko-fasean (dagoeneko burutua), honako hauek aztertu dira bereziki: REAS Euskadiren lan-ibilbidea generoaren/feminismoaren arloan; politikak eta proiektuak; parte-hartzea, erabakiak hartzeko prozesua eta komunikazioa; lan-prozesuak eta lantaldea (eginkizunen eta arduren banaketa); eta balioak eta antolakunde-kultura.





## Ikaskuntzak

Prozesu honetatik ateratako ikaskuntza nagusietako bat izan da egiaztatzea erronka nagusietako bat dela, ez bakarrik prozesuak eraldatzea hori bermatzeko, baizik eta antolakundeen habitagarritasuna beste toki batzuetatik pentsatzea, geure buruari beste galdera batzuk egitea, lantalde eta antolakundeetan ongi egiten ari dena erantzun egokia ematen asmatzen ari ez garen horrekin konbinatzeko erantzunak ere bilatze aldera, eguneroko lanari eta premiei erantzutea eta beste identitate batzuetan eta egiteko modu batzuetan eraikitako antolakundeak izatea lortu nahi dugula bistatik ez galtzea bateratzeko.

Onartu behar dugu, halaber, antolakundeak begirada feminista batetik aztertu behar ditugula, esaten edo egiten denaren gainean ez ezik, balioen eta egiteko eta geure burua antolatzeko moduen gainean ere lan egiten saiatu-rik. Oso eraldaketa sakona dakar horrek, erreferentzia askorik gabekoa batzuetan, eta erronka da antolakundeko gizon-emakumeentzat.

Hartara, erakundeak logika produktibista eta patriarkalez gabetzea asmo handiko helburu bat da, errezetarik gabekoa, begirada konplexuak egin ditzagula eskatzen diguna, eta hainbat esparru lot ditzagula, maila mikroenetik makroeneraino, jarduera konkretuenetik, gure proiektuen azken zentzuraino. Uste dugu Bizigarrik begirada zabaldu duela eta lanak jarraitu egiten duela.

Prozesu honen lagun-egitea/dinamizazioa oso aberasgarria izan da, REAS Euskadirentzat eta, prozesu gisa, Bizigarrirentzat ez ezik, talde hori osatu duten pertsona eta antolakundeentzat ere bai. Ildo horretan, halako prozesuetan, zenbaitetan, talde dinamizatzaileek egoera delikatuak edo laguntzaren beharra topatzen dituzten lanaren zenbait unetan, eta espazio horrek hori guztia partekatzeko aukera eman du. Bestalde, ekonomia solidarioko zenbait antolakunderen arteko lankidetzazko esperientzia bat ere izan da.

Azkenik, gure iritziz, esperientzia honek ekonomia sozial eta solidarioa hedatzen laguntzen du, haren praktikak sendotzen dituelako –daukan eraldatze-ahalmena indarturik– eta antolakunde habitagarriagoak eraikitzea bultzatzen duelako.



## Aplikaziorako hurrengo pausoak eta/edo gomendioak

Prozesuaren hurrengo fasea plangintzan zentratuko da. Gomendioei dago-kienez, halako prozesuetan kontuan izateko ideia batzuk proposatzen ditugu:

- › Prozesu hauek konplexuak, sakonak eta epe luzeak dira, eta inplikazio eta parte-hartze handiak eskatzen dituzte, antolakundearentzat benetan egokiak izan daitezten.
- › Prozesu hauek antolakundeak era integralean aztertzeko xedea dute, zentzu bitan gutxienez. Lehenik, xedea ez da ikusten dena bakarrik aztertea (produktuak eta diskurtsoak), baizik eta desberdintasuna sortzen ari diren egiturak, dinamikak, eta balioak eraldatzea. Bigarrenik, azterketa integral horrek eskatzen du parte-hartzea izan dadila ez bakarrik pertsona "kontentzituena" edo "genero-gaietan" lan egiten dutenena, ahalik eta talde zabalenarena baizik.
- › Prozesu hauek antolakundeei denborak, energiak eta baliabideak eskatzen dizkiete.
- › Prozesu hauetan erakundeak osatzen dituzten pertsonak dira protagonistak, baina, haien konplexutasuna dela bide, lagun egiteko eta dinamizatzeko kanpoko lan bat behar dute.



## Gako-hitzak

- › Genero-ekitatearen aldeko antolakunde-aldaketa

2. ARDATZA. ANTOLAKUNTZA-PROZESU EZ-HETEROPATRIARKALAK

# Espazio Agroekofeminista (Entredós Fundazioa)





Entredós fundazioaren espazio agroekologiko feminista bestelako ekonomia-era bat sortzeko toki bat da, maila sozial eta erlazionalean oinarrituz, feminismoaren eta ekologismoaren bidez. Gure goiburua da toxikorik ez naturan, baina gure harremanetan ere toxikorik ez.

Hileko azken igandean, azoka bat egiten dugu Entredós fundazioaren espazio autogestionatu feministan, Madrilgo eta inguruko hainbat emakume ekoizle ekologikorekin.

Azokaz gain, hitzaldiak eta lantegiak egiten ditugu, eta janariak eta edariak ematen ditugu, elkar topatzeko, trukatzeko, sozializatzeko eta kontzientziazteko tokia izan dadin.



## **Ekimena bultzatzen duten pertsonak eta erakundeak**

María Juárez Escario, Tania Rodríguez Manglano eta Patricia Esteban Zamora. Entredós fundazioa, bazkideak eta matroi laguntzaileak. Ekoizleak, hornitzaileak eta lagun feministak.



## **Deskribapena**

Proiektu honetan giza harremanak erdigunean daude; izan ere, gure iritziz, gure ingurunearekiko errespetu sakona egon dadin eta aldaketa benetan eraldatzailea gerta dadin, beharrezkoa da gure harreman-sistemak ere aldatzea, besteekiko zein geure buruarekiko errespetutsuagoa den sistema bat garatzeko horrela, harreman sanoagoekin, gardenagoekin, komunikatzeko eta entzuteko, konfiantzazko, alaitasunezko eta edertasunezko harreman batzuekin.

Gaur egun, naturarekiko errespetua guztiz beharrezkoa da, baina hori egiten badugu pertsoneri, harremaneri eta zorionari loturiko faktoreak aintzat hartu gabe, eredu zaharrak errepikatzen ditugu, gizaki zorigabeak eta gizarte bidegabe bat sortzen dituzten eredu batzuk. Horrexegatik da gure goiburua lurrera toxikorik ez, baina harremanetan ere toxikorik ez.

Espazio agrofeminista, hala, topagune bat da, non kontsumitzaile eta ekoizleekiko harremanak zaintzen diren, non haien beharrianak eta kezkek entzuten eta aintzat hartzen diren, halakoak azken erabakien parte direlarik.



Bestalde, proiektuaren funtsezko atal bat da kontsumitzen dugunaren garrantziaz kontzientziaztea, bai eta kontsumitzen dugun, erosten dugun eta jaten dugun moduaren garrantziaz ere. Hitzaldi eta lantegietan, hiru bloke lantzen ditugu batez ere, gorputza, lurra eta pertsonak (hau da, osasuna eta elikadura, agroekologia, eta pertsonen arteko harremanak).

Horri dagokionez, lehentasunezkoa iruditzen zaigu, orobat, landa-eremuaren eta hiriaren arteko zubiak ezartzea, eta landa-eremuko emakume ekoizleen lanari baliua ematea. Hartara, espazio bat uzten dugu beren proiektuak aurkez ditzaten, hitzaldiak eta are lantegiak eman ditzaten, gai bakoitzean sakontzeko (sukaldaritza, osasuna, ekonomia alternatiboak...). Horrek, era berean, kontsumitzaileen eta ekoizleen arteko ezagutza eta konfiantza sortzen laguntzen digu

Gainera, ekoizleen beren arteko laguntza-harremanak eratzen dira.

Ekonomia buruaski bat sortzen ari gara, kanal laburrekoa eta hurbilekoa, landa-eremuko hainbat emakumeren proiektuei laguntza emanez, laguntza hori ekonomikoa eta, askotan, emozionala dela (agroekologiaren munduan, eta are gehiago landa-eremukoan, zailtasun handiagoak aurkitzen dituzte emakumeak izateagatik). Geure buruari mugimendu zirkularra ere baderitzogu, etengabe aldatzen ari gare-lako, etengabeko trantsizio batean, prozesu batean, eta ez garelako sekuentzialak sentitzen, ziklikoak baizik.



## **Ikaskuntzak**

- › Diskurtso agroekologikoetan ikuspegi feminista gehitzea.
- › Jarduera ekologikoaren erdigunetik merkatuaren logika aldentzea, erdigune horretan bizitzaren jasangarritasuna kokatzeko.
- › Dikotomia tradizionalak desegitea (publikoa / pribatua; landa / hiria), halakoek loturik daramaten hierarkizazioa desaktibatuz horrela.
- › Emakume ekoizleak bizitzaren jasangarritasunaren zikloan egoteari balioa eta aitormena ematea.
- › Eguneroko praktika politikoei garrantzia ematea, aktibismoaren era behinena den aldetik.
- › Norberarengandik abiatzea politika feminista lehen pertsonan egiteko moduztat, norberaren beharrianak ekintzarako eragiletzat ezarririk.
- › Harremanaren praktika garatzea, emakumeen arteko lotura ezinbesteko tresnatzat nabarmenduz proiektu feministen praxirako eta abiarazterako.
- › Antolatzeko eta erabakiak hartzeko egitura horizontala.
- › Boteretik eza, proiektuari lotutako pertsonen arteko harremanetarako birtartekotza gisa.
- › Emakumeen artean aniztasuna eta konfiantza politikoa ahalbidetzea, homologatzen eta mugatzen gaituen irudikapen tradizionalari kontrajarrita.
- › Zainketak –fisikoak, emozionalak, psikologikoak zein sozialak– diskurtsoaren eta praktikaren beraren erdigunean kokatzea, parte hartzen duten emakumeen denborak eta beharrianak aintzat harturik.



## Aplikaziorako hurrengo pausoak eta/edo gomendioak

Proiektuaren funtsezko xedea da pertsonekin eta ingurumenarekin bidezkoagoa eta errespetutsuagoa den kontsumo baten alde konprometiturik sentitzen diren pertsonen kopurua handitzea. Eta horrez gain, kalitatezko harreman sozialak sortzea, eta elkarrekin ikasteko toki bat (teknikoa eta soziala, agroekologiako edo sukaldaritzako –esaterako– lantegien bidez, baina komunikaziorako eta eraldaketa sozialerako toki bat ere bai).

Horretarako funtsezkoa da harremanei eta zabalkundeari lotutako komunikazioa, bai eta azokaren espazioan, lantegietan eta hitzaldietan sortzen den trukea ere.

Gure asmoa da, halaber, pertsona laguntzaileak (kontsumitzaileak zein ekoizleak) inplikaturik eta ilusionaturik senti daitezen proiektuaren zati izatean. Azoka den hazi hori abiapuntu, helburua da lantalde eta kontsumo-talde autogestionatuak sor daitezen, halako produktuak ohikotasunez eskuratu ahal izateko eta ekoizleei egonkortasuna emateko.



## Gako-hitzak

› Agroekologia, feminismoa, gorputza eta lurra, ekonomia feminista, zirkularra.

# Praktika ez-patriar- kalak mundua aldatzeko gure antolakundeetatik (Mugarik Gabe)







Mugarik Gaben, nahiz eta ia gure hasieratik genero-ikuspegia egiten dugun guztian gehitzeko apustua daukagun, 2000. urteaz geroztik hasi ginen kontzientzia hartzen, gure lanean aldaketak egiteko, halaberrez geure politikak, balioak eta eguneroko praktikak aldatu behar genituela, maila indibidualean zein maila kolektiboan. Hori dela eta, azken urteetan genero-ekitatearen aldeko antolakunde-aldaketarako prozesu batean murgildurik gabiltza. Prozesu hori gure antolakunde-kultura aldatzen ari da, eraldaketa sozial feminista batekin era integralago batean koherentea izan nahi duen antolakunde bat sustatzen ari da.



## **Ekimena bultzatzen duten pertsonak/antolakundeak**

SETEM Hego Haizea, Joxemi Zumalabe, ESK, Hegoa eta Mugarik Gabe.



## **Deskribapena**

Hasieran esan dugunez, Mugarik Gabek 15 urte baino gehiago daramatza antolakundearen eredia eta praktikak birpentsatzen, genero-ekitatearen aldeko erakunde-aldaketarako prozesu bat eraikiz. Horko bidean, ohartu ginen kontraesanezkoa zela bide horretan bakarrik jarraitzea, "bakarrik ahal dugula" pentsarazten digun indibidualismo heroiko horri eutsiz, era kolektiboan eraikitzea askoz interesgarriagoa eta hobea dela ahantzarazita. Horregatik, ikuspegi bereko beste antolakunde batzuekin kolektiboki eraikitzea erabaki genuen; hain zuzen ere, antolakunde horiek, askotan, bazituzten gureak bezalako zailtasunak eta erronkak.

Hala, 2015ean "Ikusezinean bidaiatzen" prozesua abian jarri genuen, eta haren bidez antolakundeetan praktika ez-patriarkalen trukerako eta eraikitze kolektiborako espazioak sortu ditugu, hiru ardatz hartuta: erabakiak hartzeko prozesua; lan-ereduak; eta gatazken eta emozioen kudeaketa. Prozesu horretarako, bi praktika on hautatzen ditugu lehentasunezko ardatz bakoitzean. Gero, ikasteko eta trukatzeko espazioak sortzen ditugu, haietan praktika on horiek sakonago ezagutzeko, bai eta hainbat kolektiboren beste batzuk ere. Prozesu horren barruan, Euskadiko bost antolakundek praktika on horietako bat urtebetez esperimintatzeko asmoa hartu dugu. Helburua da praktikak abiapuntu harturik ikasiz joatea, bai hasiera batean identifikatu diren esperientzietatik bai 5 erakunde horien esperientzietatik ikasiz, hain



zuzen; epe ertainerako jomuga da urtebeteko lan hori partekatzea, eta elkarrekin zenbait ezagutza-produktu sortzea, halakoek laguntzen jarrai dezaten genero-ekitatearen aldeko erakunde-aldaketarako gure prozesuetan. Produktu edo tresna horiek antolakunde gehiagorekin kontrastatuko ditugu, ahalik eta ikuspuntu gehien izateko eta, hala, edukien aldetik nahiz sorkuntzazko formen eta aplikatzeko metodologiaren aldetik hobetzeko.



## **Ikaskuntzak**

Epe luzeari begira, gure lehen ikaskuntzetako bat da aldaketa eraldatzaileek denbora behar dutela, bai eta pertsonengan nahiz antolakundeetan bertan aldaketa sakonak gertatzea ere. Horretarako ezinbestekoa da baliabideak edukitzea; hor berebiziko garrantzia du antolakundearen eta hura osatzen duten pertsona guztien denborak, kolektibo guztiaren benetako inplikazioa gerta dadin.

Ikasi dugun beste elementu bat izan da genero-ekitatearen aldeko antolakunde-aldaketarako prozesuek berekin dakartzatela bai antolakundeetako pertsonengan, bai antolakundeetan bertan (haien politikak, egiturak, balioak...), bai aurkitzen garen testuinguruan aldaketak gertatzea. Ez du balio arlo horietako batean bakarrik aldaketak atxikitzeak. Une batzuetan ekintza publikoak aldatu ditugu, baina hori bakarrik ez zen aski; beste une batzuetan, gure organigrama eta botere-harremanak nolakoak ziren begiratzeko genuen, baina hori bakarrik ez zen aski; eta beste une batzuetan, gogoetari eta aldaketa pertsonalari lotu gintzaizkien, baina hori bakarrik ez zen aski. Guztia da prozesuaren zati, zeinek bere enfasiak edo faseak izan ditzake, baina genero-harremanetan aldaketa eraldatzaileak hiru mailetan lortu behar dira (maila pertsonalean, antolakunde-mailan, eta gure testuinguruan).

Nahaste horren guztiaren barruan, kontzientzia hartu dugu, orobat, gure prozesu pertsonalean bezala, ez dela posible antolakundeak aldatzea antolakunde-kultura aintzat hartu gabe Protokoloak, agiriak, pertsonak, hizkerak, eta abar alda ditzakegu, baina ez baditugu aldatzen antolakunde-balioak –antolakundearen erroak eratzen dituzten eta gure egunerokotasunari daxezioki balio horiek–, ez da posible izango antolakunde feministagoak lortzea. Baliozkotzat jotzen denak, garrantzitsua denak, geure antolakunde-kulturaren zantzua ematen du, eta balio sexista eta heteropatriarkalez josirik dago. Halakoak atzeman, eta pixkanaka aldatu behar ditugu, haien ordez balio berriak ezarrita, berdintasunezkoak eta feministak.



## Aplikaziorako hurrengo pausoak eta/edo gomendioak

Gogoan izan dezagun merezi duten aldaketa eta prozesu batzuez ari garela, gure diskurtsoei koherentzia ematen dietela, eta sendotasuna, eta lagundu egiten digutela kontzientzia hartzen gure egunerokotasuna beharrezko aldaketaren zati dela.

Ez dezagun ahatz, praktika patriarkal batzuk aldatzeaz ari garela, gure antolakundearen pribilegio bat erreproduzitzen dutenak (hain zuzen, tradizioz maskulinoa denaren pribilegioa, tradizioz femenino denaren gainetik), eta horixe dela aldatu nahi dugula. Ez ditugu beti izaten hurbileko erreferente batzuk lan egiteko; hartara, prozesu honetan egindako apustua izan da geure buruari behar besteko denbora ematea, praktika onak bilatzeko eta beste batzuekin lan egiteko, norberaren esperimentaziotik. Horrek nora garamatzen ikusiko dugu. Prozesu hau, halabeharrez, kontuan izan beharko ditugun beste zapalkuntza-elementu batzuekin gurutzatuko da (adina, gaitasunkeria, sexu-orientazioa, jatorria...). Horrelako elementuak era interseksionalean gehitu behar ditugu gure prozesuan, eta guretzat beti aurre egiteko modu erraza ez duen erronka bat izaten ari da hori.

Eraikitze-prozesu hau guztia aukera bat da, gure ideiak eta pentsamenduak ez ezik, gure emozioak eta gure praktikak ere behar dituena. Konbinatzea egokitu zaigu, eredu eraldatzaile eta, nola ez, feministak eraikitzen jarraitzeko aukera horiek guztiak nahasten dituen koktel-ontziari eragitea.



### Gako-hitzak:

› Feminismoa, eraldaketa, antolakunde-kultura, esperimentazioa.

# Feminista baldin bada bakarrik izango da solidarioa ekonomia

ECONOMIA FEMINISTA

para...

Reconoce el valor del trabajo reproductivo

Son las tareas necesarias para la reproducción y el mantenimiento de la vida

Entre mujeres y hombres y entre las propias mujeres

Fomenta la redistribución de la riqueza

Rompe con la división sexual del trabajo

Co-responsabilidad en el cuidado y equitativo de los trabajos de cuidados en la sociedad

Principio a satisfacer las necesidades básicas de base en el placer y el disfrute y no en el miedo y el miedo

Entiende el mercado como espacio de intercambio y relaciones justas

Apuesta por la democracia radical

Produce autonomía económica y vital

La especial la de las mujeres

Sea sean las mujeres, y por extensión todas las personas, quienes tomen decisiones sobre todos los aspectos de la vida a través de la participación y el consentimiento

CUANDO DECIMOS "MUJERES" NOSOTROS DE TODOS. CÉS Y TRAVIS

Incorpora saberes y visiones consideradas "periféricas" \*

\*Trabajo, lógica del intercambio, consultado con...

Comparte visiones y postulados clave con el ecofeminismo

Resumen la vulnerabilidad a las tecnologías... como trabajo humano





Ekonomia Feministako Sarea ikusgaitasuneko eta elkar laguntzako platafor-  
ma bat da, Madrileko ekonomia sozialean partaide diren Madrilgo enpresa  
eta profesional feminista guztientzat. Duela 4 urte sortu zen, 2014an, lau enti-  
tate feministaren proposamenez. Sareak bultzagarri dituen beharrianak dira,  
batetik, ekintzailetzari ekiteko prest dauden emakumeen berebiziko kopurua  
eta, besterik, ekonomia sozialaren barruan emakume feministen enpresak in-  
dartzeko ahalegina egitea. Labur esanda, apustu bat da bizitza erdigunean  
jartzen duen jarduera bat –ekonomikoa, soziala eta lan-arlokoa– praktikara  
eramatea ahalbidetzeko moduko estrategiak hobetzeko. Helburu hauek ditu,  
besteak beste:

- › Ekonomia sozialaren barruan ekitate-printzipioa sustatzea eta sendotzea.
- › Entitate eta profesional feministak elkarrekin harremanetan jartzea eta ezagutaraztea, ekonomia sozialaren barnean zein handik kanpo.
- › Entitate eta profesional feministen arteko elkar laguntzarako espazioak eta tresnak sortzea, sortu berrietan arreta berezia jarriz.
- › Sinergiak bultzatzea ekonomia sozialeko entitate feministen eta akti-  
bismo feministaren artean.



## **Ekimena bultzatzen duten pertsonak/antolakundeak**

Red de economía Feminista de Madrid («Madrileko Ekonomia Feministako Sarea»),  
Madrileko entitate feminista eta ekonomia sozialeko entitate hauek kide direla:

1. Instituto Mujeres y Cooperación (IMC)
2. Atlantic Group
3. Ecoeko cosmética consciente
4. Economistas sin fronteras, Área de Género
5. Noez design
6. Free Agent (Mónica Cuende)
7. Mujeres y Compañía
8. LaLibrería
9. Móstoles feminista/Moebius Cultura
10. Dentro de la caja
11. El huerto de la Parra
12. Throughgender



## Deskribapena

Ekonomia Feministako Sarea ikusgaitasuneko eta elkar laguntzako plataforma bat da, Madrileko ekonomia sozialean partaide diren Madrilgo enpresa eta profesional feminista guztientzat.

Horrez agin, bizitza erdigunean jartzen duen jarduera bat –ekonomikoa, soziala eta lan-arlokoa– praktikara eramatea ahalbidetzeko moduko estrategiak hobetzeko ahalegin bat da.

Ekonomia Feministako Sarean emakumeen enpresak eta profesional autonomoak daude. Sarea osatzen dugun enpresa eta pertsonak askotariko arlotan dihardugu: komunikazioan, kosmetikan, hizkuntza-irakaskuntzan, laguntza juridikoan eta arre-ta psikologikoan, artean eta kulturaren, emakume-sareentzako laguntzan, arropa birziklatuan, ekonomia sozialeko proiektuentzako laguntzan, proiektu ekologikoetan... bada guztiok batzen gaituen zerbait: enpresaburu eta entitate gisa, gure interes nagusietako bat dela gure lanean ekitatea sustatzea.

### Sarean sartzeko eta geratzeko irizpideak:

- › Parte hartzen duten entitate zein profesionalen ekitate feministako printzipioa jaso behar dute hala beren estatutu eta sorrera-aktetan nola, koherentziaz, beren jokabidean.
- › Sartzen diren entitate eta profesionalen lehendik barruan dagoen beste baten bermea izan beharko dute.
- › Sarean era aktiboan parte hartu beharko dute, lantalde bateko kide izanez, gutxienez, eta bileretara agertuz.
- › Sartzeko, beharrezkoa izango da kide diren entitate eta profesionalen onespena jasotzea.



## Ikaskuntzak

**Lehen helburuari dagokionez:** Ekonomia sozialaren barruan ekitate-printzipioa sustatzea eta sendotzea. Ekonomia Feministako Sareak ekitate-printzipioa aurrerarazi du Madrilgo ekonomia sozialaren barruan, ordezkaritza handienerako plataformetan parte hartuz (REAS Madrid, Mercado Social), bai eta estatuko ekonomia sozialean ere (REAS, ekonomia feministari buruzko estatuko kongresua). Ekitateari buruzko lan bateratu bat egin dugu ekonomia sozialaren barruan, eta horren emaitza izan da lorpenen eta erronken sintesi bat, bide-orritzat balio diguna. Halaber, CANVAS feminista bat prestatu dugu, enpresa-plan bat garatzeko plan horrexen barruan ikuspegi feminista kontuan hartuz.

**Bigarren helburuari dagokionez:** Entitate eta profesional feministak elkarrekin harremanetan jartzea eta ezagutaraztea, ekonomia sozialaren barnean zein handik kanpo. Web bat eta fan page bat sortu dugu Facebooken eta Twitterren, eta handik gure enpresekin nahiz ekonomia feministarekin zerikusia duten gertaerak zabaltzen ditugu. Ekonomia Feministako Sarea zigilu more moduko bat da, haren barruan kontsumitzen duzuna ekitate-irizpideekin eta emakume feministen lidergoarekin eginda dagoela bermatzen duena.

**Hirugarren helburuari dagokionez:** Entitate eta profesional feministen arteko elkar laguntzarako espazioak eta tresnak sortzea, sortu berrietan arreta berezia jarritz. Sortu berriekin zerikusia duen azken zatiaren aldetik, ohartu gara ez dela erraza izaten Sarean enpresa eratu berriak sartzeari, haien erritmoak direla eta, eta jarduera komunetan erabiltzeko erabilgarri duten denbora dela eta. Sare barnean egiazko debatea sortu du horrek, eta gure aukera izan da enpresa sortu berriak aholkularitza-baliabide espezializatuera bideratzea. Enpresa berrien eta finkatuen erritmoen arteko alde horrek garrantzizko debate bat eragin du "zainketak" terminoari buruz feminismoaren barruan. Zer da zaintzea? Nola sentitzen gara zainduak?. Eta abar.

**Laugarren helburuari dagokionez:** Sinergiak bultzatzea ekonomia sozialeko entitate feministen eta aktibismo feministaren artean. Sarea ekonomia feministaren arloko erreferentetako bat da gaur egun, praktikan.

Horrek eragina izateko ahalmen handia ematen digu, eragile sozial gisa, baina era berean gure tamainaz eta prekarietateaz kontziente egiten gaitu. Esaterako, gure apustuak bat da Madrilen etxe-zerbitzuko langileen enplegu-baldintzak hobetzea, baina eragozpen handi bat da horretarako ekonomia sozialeko enpresen tamaina. Beste lurralde batzuetako beste enpresa batzuekin sinergiak ezartzeko asmotan ari gara, hori nola bideratu ikusteko.



## Aplikaziorako hurrengo pausoak eta/edo gomendioak

Tamaina aldatzea: Sareko enpresek sektorea ordezkatzeko gai izan behar dute.

Subjektu disidenteak kontratatzea: guk enplegua eta aberastasuna sortzen dugu, eta gure helburuak izan behar du haiek banatzea, subjektu hegemoniko zuriez, unibertsitarioez, eta abarrez gainerakoen artean ere.

Jardunbide egokiak sistematizatzea, lanaren bateragarritasuna, lidergo horizontala, eta tratu ona ekonomia sozial eta solidarioko beste enpresa batzuetan sustatzeko.



## Gako-hitzak

› Ekonomia feminista, praktika feministak, ikusgaitasuna, zainketak eta bizitzaren berrekoizpena.



# Azterketa-prozesu kritiko feminista bidezko merkataritza- tzaren arloan





Esperientzia hau prozesu kolektibo bat izan da, azterketa egiteko eta proposamenak sortzeko, bidezko merkataritzako antolakundeen lan-arloan ikuspegi feminista gehitzeko xedez. Hainbat lan-saio egin eta gero, material batzuk prestatu dira, integrazio hori bideratzeko, bai parte hartu duten antolakundeetan, bai ildo horretan pausoak ematen jarraitu nahi duten antolakundeetan. Azken batean, gogoeta bati ematen zaio hasiera, haren bidez gai hauek sakontzeko eta debate berriak abiatzeko bide emateko.



## **Ekimena bultzatzen duten pertsonak eta erakundeak**

Euskaditik: SETEM Hego Haizea, Medicus Mundi Araba, Kidenda eta Equipare koop. elk. txikia; Mexikotik: K'inal Antsetik; eta Ekuadorretik: Maquita eta Grupo Social FEPP.

Erakunde dinamizatailea: Pandora Mirabilia.



## **Deskribapena**

SETEM Hego Haizeak kontsumo kontziente, arduratsu eta eraldatzailea landu nahi du bere proposamenek genero-estereotipoak ez erreproduzitzeko moduan eta indarkeria matxistarik gabekoak izateko moduan, eta esperientzia hau apustu horren barruan kokatzen da. Bidezko merkataritza da aukeratu dugun arloetako bat ikuspegi feminista gehitzea lantzeko.

Pandora Mirabiliako kideek dinamizatu dute gogoeta-prozesua, eta aurrez aurreko sei saiotan eraman da aurrera Euskadiko antolakundeekin, batetik, eta online lan eginez Mexikoko eta Ekuadorrekoekin, bestetik Saio horietan parte hartu dutenek autoazterketa egiteko eta proposamenak sortzeko ariketak egin dituzte, hainbat esparru landuz: bidezko merkataritzari buruzko diskurtsoa (hizkuntza eta irudiak); barne-antolakuntza; metodologia eta didaktika; zabalkundea eta komunikazioa; agenda feminista; eta abar.

Halaber, bidezko merkataritzako produktuen ekoizpen, banaketa eta salmentaren zikloa aztertu zen, indarkeriak edo genero-desparekotasunak gertatzeko arrisku handiagoa duten puntuak identifikatzeko edo –emakumeen eta gizonen artean berdintasun handiagoko harreman batzuk egoteko– bidezko merkataritzak eragin positiboa izaten duen puntuak.



Prozesuaren helburua izan da kolektiboki protokolo bat sortzea, tresna batzuk eskaintzen dituen parte hartutako antolakundeei zein interesa duten beste batzuei genero-ikuspegia beren lanean gehitzen laguntzeko.



## **Ikaskuntzak**

Prozesuko ikaskuntzak lau agiritan bildu ditugu (oraindik behin-behineko bertsioan eta kontrastatzeko):

Adierazle-proposamen bat, genero-ikuspegia bidezko merkataritzan zeharkako era batean zein neurritan gehitzen ari garen ebaluatzeko.

Bidezko merkataritzako produktuen zikloaren faseetan dauden genero-desparekotasunen azterketa bat, ekoizten direnetik merkaturatu arte. Hortik abiatuta, faktore batzuk nabarmentzen ditugu, haien kausekin, ondorioekin, eta haiei heltzeko proposamenekin batera.

Bidezko merkataritzaren lan-esparruetan genero-ikuspegia gehitzen laguntzen diguten fitxa batzuk: edukiak, prestakuntza, beste antolakunde batzuekiko lana, eta antolakunde-kultura. Lan-tresna bat da, gogoeta egitera bultzatzen duten galdera batzuk dauzkana, galderon arrazoia azaltzen duten hainbat oharrekin batera.

Bidezko merkataritzan genero-ikuspegia aintzat hartzeko oinarritzko hamar printzipio jasotzen dituen dekalogo bat; funtsezko mezuak laburbiltzen ditu, bai eta jomugatzat hartu beharko litzatekeen horizontea ere.



## Aplikaziorako hurrengo pausoak eta/edo gomendioak

Prozesuaren emaitza izan diren lau agiriak kontrastatzeko eta azken ukituak emateko daude oraindik, parte hartzen duten antolakundeek azken ekarpenen bidez. Azken hori egindakoan, bidezko merkataritzaren arloan lan egiten duten beste erakunde batzuen ekarpen eta iradokizunak bilatuko dira, haiek jasotzeko, Bidezko Merkataritzako Estatuko Koordinakundearen eta haren batzarren inguruan bereziki.

Horren ondorioz sorturiko tresnak sozializatu eta zabaldu egingo dira, gehienbat bidezko merkataritzarekin lan egiten duten antolakundeek artean, haietako bakoitzak, antolakunde barnean, bere egunerokotasunean begirada feminista gehitzeko moduz gogoeta eta debatea egin dezan. Espero dugu agiri horiek abiapuntutzat baliagarriak izatea haientzat, eta bide horretan aurrera egiteko gidalerroak ematea.



## Gako-hitzak

› Bidezko merkataritza, feminismoa, tresna.

# **Ikaskuntza eta sorkuntzako prozesu kolektiboa indarkeria matxistei eta kontsumoei buruz**





Esperientzia hau SETEM Hego Haizeak eta Zarensare-Enredando sareak bultzaturiko lan-prozesu baten emaitza da. Prozesu horretan, hainbat jenderen inplikazio eta parte hartzearen bidez, sakondu nahi izan da kontsumo-eredu kapitalista indarkeria matxistak erabiltzeko tresna bat bihurtzen duten elementu nagusietan, elkar atzeraelikatuta eta bazterketa eta mendetasuneko sistema bat sendotuta, era bereziki garratzean emakumeei eta heteronormati-botasuna desafiatzan duten subjektuei eragiten dien sistema bat, hain zuzen.

Gogoetarako espazio kolektiboak sortuz, begirada indarkeria agerikoenetan jarri dugu, emakumeak gauza bihurtzen dituzten eta kontsumoa sustatzeko objektu huts bilakatzeraino baztertzen dituzten indarkerietan, baina, garden bihurtzeko duten gaitasuna dela medio, ikusezin bihurtu arte normalizatu egiten diren horietan ere bai, halakoek generoko rol eta estereotipoak indartzen baitituzte, eta kontsumitzen duenaren osasuna bera arriskuan jartzen (emakumeena kasu honetan).



## **Ekimena bultzatzen duten pertsonak eta erakundeak**

ZARENSARE-ENREDANDO SAREA, hauek kide direla: Corporación para la Vida Mujeres que Crean (Medellín), Corporación Ecológica y Cultural Penca de Sábila (Medellín), Emakumeak Aniztasunen elkarte (Basauri), Sagarrak Ekologista Taldea (Basauri), Hemengo eta Hango Emakumeak elkarte (Basauri), Pozokoetxe auzo-elkarte (Basauri), Fundación REDES (San Salvador), SETEM Hego Haizea (Euskadi). Beste parte-hartzaile batzuk: Mugarik Gabe (Euskadi), Empresa Social Altekio-Iniciativas hacia la Sostenibilidad (Madrid).



## **Deskribapena**

Esperientzia honen abiapuntua da bai SETEM Hego Haizeak bai Zarensare-Enredando sareak indarkeria matxisten eta kontsumo kapitalistaren artean dagoen lotura esploratzeko zuten beharra, halakoak identifikatzeko eta indarkeria matxistatik gabeko kontsumo kritiko, arduratsu eta eraldatzailerako proposamenak kolektiboki eraikitzeke helburua betetze aldera.

Prozesua urtebete baino gehiago luzatu da (2014-2015), eta debate, gogoeta, kontraste, intuizio eta proposamenak baliatuz garatu da. Halakoek teoria feministaren hainbat joeratan oinarri hartu dute, eta haien emaitza azterlan oso bat eta deba-



te-gida bat izan dira. Agiri horietan biltzen dira bai esperientziaren marko teorikoa bai bertatik bertarako azterlanaren emaitzak, etxeko eremuaren, eremu pertsonalaren eta mugikortasunaren eremuaren artean banaturik.

Prozesuak eta azterlanaren emaitzek agerian utzi zituzten indarkeria matxisten eta kontsumoaren artean dauden askotariko lotuneak.



## **Ikaskuntzak**

### **Prozesuak sortutako ikaskuntza deigarri batzuk:**

- › Prozesuaren aurrekoa, ikerketa honen aldeko apustu gisa, ikuspuntu feministatik eta zenbait GGKE eta entitate mistotik egitea eta kapitalismoaren eta patriarkatuaren arteko aliantza zehaztu eta frogatzea lortzea xedetzat zuen apustua, hain zuzen.
- › Debate zabalak eta kontzeptu eta ikuspuntu zabalaren aldeko apustua (intersekzionaltasuna, indarkeria matxistak, kontsumoak, etab.)
- › Jendeak, oro har, eta are adituek ere duten zailtasuna indarkeria matxisten eta kontsumoaren arteko lotura ezartzeko.

### **Emaitza zehatzetan:**

- › Erostearen eta elikatzearen artean maitasun-ekintzatzat sortzen den lotura. Adibidez, Nestlé-ren iragarkia: “eman baino gehiago jasotzen duzu”, betiereko emakume zaintzailearen ideia erreproduzitura (indarkeria sinbolikoa).
- › Osasungarritzat saltzen dizkiguten produktu lighten ondorio fisikoak.
- › Gizonetan % 38 eta emakumeetan % 24 errudun sentitzen dira etxeko zereginetan eta familia-arloan espero den mailara ez iristeagatik (93. or.)
- › 10 emakumetik 3k eta 10 gizonetik 2k diote aldaketa edo hobekuntza fisikoa nahi dutela. Kontrajarrita, emakumeen artean % 58k aditzera ematen du produktu estetikoak maila ertain edo handian erabiltzen dituztela, eta gizonen artean, aldiz, % 90ek esaten du maila txikian erabiltzen dituztela, edo batere ez dituztela erabiltzen.
- › Mugikortasunari dagokionez, emakumeak ez dira joaten urrutiko tokietara, aisiaguneetara, segurtasun-arrazoiengatik (indarkeria sinbolikoa: kon-



tuz, ez joan hara = zuzeneko indarkeria = beldurra / aisia gutxiago).

- › Emakumeetan, % 46 oinez mugitzen dira, eta gizonetan, aldiz, % 41 autoz mugitzen dira.
- › Emakumeen heren batek jasan ditu hitzezko erasoak kalean, eta mugitze-ko ohituretan aldaketa bat egin du beldurratik.



## **Aplikaziorako hurrengo pausoak eta/edo gomendioak**

Aipatu dugunez, prozesuaren azken helburua da ezagutza kolektiboa sortzea, kontsumo kontziente, arduratsu eta eraldatzailearen arloan lan egiten duten entitateen lana orientatzeko, kontsumo eraldatzailetik indarkeria matxistei aurre egiteko garaian ikuspegi feministak integrazio egokia izan dezan lagunduta. Ikuspegi horretatik, lorturiko emaitzek balioko dute Zarensare-En-Redando sareko entitateek egiten duten lana gidatzeko, eta prestatu den gidak baliagarria izango da arlo horietan abian jartzen diren esku-hartzeak ikuspegi metodologiko eta teoriko batetik egokitzeko. Gainera, sare batean egonik, esperientziak partekatu egin ahalko dituzte, eta, horrela, proiektu honek –haien barnean zein haietatik kanpo– izan dezakeen inpaktua areagotu.

Emaitzen berri emango zaie herritarrei nahiz gai hauetan lan egiten duten sektoreei, indarkeria matxistarik gabeko esku-hartze batzuetan aurrera egitea ahalbidetuko dieten gidalerro batzuk eskaintze aldera.

Azkenik, gogoetaren eta ezagutza kolektiboaren arloan gauzatu dugun jarduera, gure ustez, bereziki inspiragarria izango da guk gehiago aztertu ezin izan ditugun zenbait alderditan sakondu nahi duten entitateentzat; horregatik, pentsatzen dugu bereziki baliagarria den gogoeta-arlo bat ireki dugula, ibilbide luze bat izateko aukera asko dituen.



## **Gako-hitzak**

- › Indarkeria matxista, kontsumoak, feminismoak, kapitalismoa, heteropatriarkatua.



Setem



[www.setem.org/euskadi](http://www.setem.org/euskadi)